# Nola erabili RSS kanalak webgunean argitaratzen dugun informazioaren berri izateko?

Nola erabili RSS kanalak webgunean argitaratzen dugun informazioaren berri izateko, “Internet Explorer" (7. bertsioa edo goragokoa) badugu? Aurreko bertsiorik ez baduzu, hobe duzu azken-azkena instalatzea. Horrela, RSS kanalak erabili ahal izango dituzu, eta segurtasun handiagoa izango duzu.

## 1. urratsa.- RSS iturriak aurkitu




Egin klik RSS kanalen ikonoan,




...edo, bestela, gure webgunearen behealdean RSS ikonoa aurkituko duzu. Hor klik eginda, gure kanalen zerrenda ikusiko duzu.

## 2. urratsa – Aukeratu RSS zein kanaletan egin nahi duzun harpidetza




Aukeratu kanala zerrendan agertzen diren kanalen artean.




Kanaletako batean klik egiten duzunean, leiho hau zabalduko zaizu. Leiho horretan kanaleko berriak eta “Iturri honetan harpidetza egin” izango dituzu (gezi gorria).
Egin klik aukera horretan.




Leiho bat zabalduko da berriaren izena aldatzeko eta kanala non gorde nahi duzun aukeratzeko.

Modurik errazena da “Gogokoenak” izeneko barran gehitzea. Horretarako, geziak adierazten duen laukia markatu beharko duzu. “Harpidetza egin” botoia sakatu eta zure nabigatzailean izango duzu berrien karpeta (ikusi hurrengo argazkia).




Zure nabigatzailearen goialdean, helbide barraren azpialdean, “Gogokoenak” izeneko barran hain zuzen, ikono berri bat izango duzu eta bertan aurkituko dituzu webgunean txertatu diren azken berriak. Irakurri gabeko berririk baduzu, markagailua letra lodiz agertuko zaizu.

## 7. urratsa – RSS berriak irakurtzeko Outlook aukeratu




Gure webgunearen behealdean RSS ikonoa aurkituko duzu. Ikonoan klik eginda, gure kanalen zerrenda ikusiko duzu.




Kanal horietako bakoitzak berariazko helbidea (URL) du. Helbidea kopia dezakezu eta zure Outlooken txertatu.




Saguaren eskuineko botoia sakatzen baduzu eta “kopiatu lasterbidea” aukeratzen baduzu, kanalaren helbidea kopiatuta izango duzu eta Outlooken itsatsi ahal izango duzu.




Outlooken "RSS Iturriak" izeneko karpeta izango duzu. Karpetan bertan saguaren eskuinaldeko botoian klik egiten baduzu eta " "RSS iturri berria gehitu" aukeratzen baduzu, aurretik moztu duzun helbidea itsatsi ahal izango duzu.




Saguaren erakuslea lauki zuriaren gainean (**1**) jarri eta klik egin beharko duzu. Sakatu Ctrl eta V biak batera helbidea gune zuri horretan itsasteko. Hori egin ondoren, "Gehitu" (**2**) botoia sakatu baino ez duzu egin behar, eta kanala zuzenean pasatuko da Outlookeko "RSS iturriak" karpetara. Karpeta hori gainerakoak bezalaxe kudeatu ahal izango duzu.